

consonni

Ixiar
Rozas

Narrugorrik



Narrugorrik

arnasten duen zerbait

arnasten duen zerbait arnasten



I

biluzik

ahotsak aterpea bilatzen du biluzik daudenentzat

iturri a errek a
ez painak irekit a

hotz uhin a
masail a
etenik gabe

hezetasuna bi
ez painak irekit a

dabilen ur a

hori

a ditu

Uraren hotsa, hotz. Eztarri zuloa, heze. Hotza ezpain, hortz, hortzoi, mingainean. Listua. Listuarekin, hots eta soinuak igotzen. Igotzen dira bustita. Bustidura, ahora, gora. Iturria, erreka, goiz gori gorria. Igotzen dira ordura arteko ezpain, aho eta mingainak.

Pilox pilox. Igotzen dira hortz eta listuak, izandako piloxak. Igotzen dira beheko ezpainetik, gorantz. Hotza ahoan, bi, goikoa, behekoa, bi, eta beste zuloak ere hotz. Igotzen dira ordura arte ahosabaian edandakoak, esandakoak, esan gabekoak, gorantz.

Gertu, iturburuan. Hain gertu, ia zirriborratuta ageri zaizula. Moko bustia, zango dardartiak. Pilox orduan, pilox orain ere. Hegaztiaren begiak, lepo gorri puztua. Ezpainak, goikoak, behekoak, beste zuloak. Uretan goroldioak eta hosto distirak. Hotza ezpainetan, hotzak mokoak, lepoa, hortzak. Igotzen dira inguruko ur arrastoak, errekaak. Hosto eta adarrak, harriak, sasi eta orbela, pilox. Huntz, sasiama, intsusa beltz eta arteen artean. Ortozik, txorkatiletatik, arteen hostoak. Hotza oinetan, eskuetan. Gorantz, artean loratu gabeak. Igotzen da goiz gori gorria, adarren artean gora, gorago lainoak. Uraren hotsak bat, pilox, ura inguratzen duen paisaiaren oihartzuna. Basapiztiak igotzen dira, iluntzean, edatera, pilox edatera, iluntzean, bilduran aho bustiak, pilox.

Ur guztiak bat, hura ere bada.

Moko bustia, eztarri zulutik igotzen, pilox bilduta, eskuak.

Igotzen, ezpain, entzumena. Pilox, ur, lur, aire.

Eta haizea, dena berdintzen.

Dabilen ura, eta haizea, halaxe soinuak.

Ordura arteko aho, listu eta doinu guztiak heze, bilduta.
Denak bustiduran oratuta, mintz batean.

Aurretik egon den, dagoen eta ondorengo zerbaiten aztarna.

Eta halaxe igo, goiz gori gorria.

Birigarroa, argiro, gorantz. Aurtengo lehena, belar eta arkorotz artean. Gorago, haizearen lainoak. Aurrean mendi ertzak, bizkarra kareharrian. Ortozik txorkatilak, eguzkia noiz agertu zain. Lurraren ertzak bizkar hezurrian, gorotzak inguruan. Zaldia eta behorra alboko magalean. Birigarroa, euli bat, beste euli bat, hegazkina. Zaldiak behorra hartu du. Beste euli bat, hegazkina, bizkarra, lurraren pisua, mairu baratzea. Baten ximaurreak, bestearenak, gorantz.

Hortxe, zirkulu horretan, harri eta belar artean, errai hezea. Mendeak, mende. Birigarroa argiro. Digestioa urdailean duzu, hesteak, beleak urrun, txintzarriak ere bai. Burrunba, birigarroa, beste euli bat, bestea, eguzkia. Badira ere, hotsik gabe. Baten goroldio huntz ximaurre gorotz eta pixak. Bestearen goroldio huntz ximaurre gorotz eta pixak. Baten eta bestearen eta beste haren.

Eta doinua dator, badator, ahotsik gabekoak ondraztera.

Eta kantua, norbaitek ez zuelako ozen esan.

Hots hori habitatzen duen espazioa urruntzen.

Egunak udaberri usaina du.

Eta hemen, arkorotza, denbora hau,

euliek eta birigarroek axola dute

soilik.

Entzumenean, biluzik. Isiltasuna arreta hedatzen, eta biltzen. Hedatu eta, gero, bildu. Gauez ere bai. Gero, aizto modura, zaratak. Gero, bitan erdibitzen da arreta, aizto batek hartuta. Loarinean, ia lo ia esna. Sartu, eten eta zerbait moztu eta, gero, berriro bildu. Oinutsik txorkatilak, eguzkia noiz atera zain. Bi euli bat beste euli bat bi hiru. Txintxarriak. Belatza. Ardiak. Istant horretan, megafonia. Hots metaliko hori eta belatz gorriaren hegaldia, batera.

Negua amaitzeaz, lehen txoriak, pilox.

Urrunean zakurren zaunkak, ortozik. Bi, hiru. Agian ehiztariren bat. Gertuago, garbigailuen hotsak. Auto bat, beste bat, bi, lau. Goiz da artean, bihar igandea. Harroa zaizu megafonia. Bat egin duzu zaratekin, dantzalditan, jendetzarekin, kaleak hartzerakoan. Gauez ere bai. Eta hunkitu, deiadar-promesa-atsekabetuen artean. Gaur harroa zaizu. Lurgorri harro bat. Gaur, mendigainetik zerua, ortotsa. Gero, tolesturetan, atzeman nahia du gorputzak. Loarinean, ia lo ia esna. Hego haizea, gauez ere bai, badator bailaran dena berdintzera. Gero, ametsean ere bai. Beste gorputzak ametsean gora. Halako batean, aurreko irudian gorputz biguna, gorantz. Hurrengoan, gorputz bigun batek babesten ditu ertzak, eta hurrengoan beste bat eta, gero, beste bat eta beste bat eta beste. Ez da soinurik, behintzat ez amets horretan. Loarinean, usainak bai, umel, bat, bi.

Ia lo ia esna, ulermena diluitzen den zeharrargian.

Bata bestearen gainean azalak, pilox, ia eme, ia ar, ia animalia, ia landare, pilox,

agian, izate.

ortots a
bizkarrezurr a
kareharri a

bata
bestea

esnezko a
urezko a

il erik gabe
bi lo gabe

pi lox

Soinua, bizkarrezurra. Lehen mugimendua, materia, hezurra, artikulazioa. Lehen akordea. Soinuek eta hitzen hotsak, izaten hasi aurretik, entzuten direnak, entzungo direnak.

Bizkarrezurraren lehen arrastoa, materia, artikulazioa. Esnezkoak, urezkoak, (gutxienez) bi mingainetik (gutxienez) bi ahotik (gutxienez) bi listu eta hezetasunetik, hitzak.

Pilox, pilox.

Piloxic jaiio ninčan, pilox nago, piloxic ilgo nax ni guero.

Eta tartean, esne hizkuntza, hezur, artikulazio eta lehen mugimenduak. Beste hizkuntza, hezur, artikulazio eta lehen mugimenduak. Esnezkoa. Urezkoa. Eguzkia, ilargia, eta iluntasunak argitzen duena, eta argitasunak iluntzen duena.

Baten goroldio huntz ximaur gorotz eta pixa guztiak. Bestearen goroldio huntz ximaur gorotz eta pixa guztiak. Baten hots, soinu, balaku ezti leun. Bestearen hots, soinu, balaku ezti leun.

Baten izaki, animalia, basapiztia, basajaun eta jendilajeak, ezkutu eta agerikoak. Bestearen izaki, animalia, basapiztia, basajaun eta jendilajeak, ezkutu eta agerikoak. Baten lengoaia sistema oso baten bortizkeria ezkutu eta agerikoak. Bestearen lengoaia sistema oso baten bortizkeria ezkutu eta agerikoak.

Baten eta bestearen eta beste haren baso, sastraka, sasi, gazi, garratz, gatz, baratze, balaku, kupel, fusil, isil eta isiltasun guztiak. Baten eta bestearen eta beste haren misil, umel, kume, kurai, krudel, truin, trumoi, tortura, tronera, tiro, trikornio,

kañoi, katakunba, bonba, bunker, kera, erreka, erreketek, erresuma, erresumin, estraperlo, erditze, bertze, bertzetasun, bortizkeria, tasun eta keria guztiak.

Ezcutukoak, agerikoak, esandakoak, esanezinak.

Babesezkoak. Zitalak.

Den-denak, gorantz. Igotzen dira batzuetan ni, zu, hura, gu, zuek, haiek. Besteetan ni, zu, hura, gu, zuek, haiek.

Soinu eta hots guztiak. Denek eratu zaituzte.

Denek, izateari uzten diotenean.

Orduantxe, ez aurretik.

bil uzik
bilu zik

[luizik]

bilu hutsik
bilo hutsik
bilo huts

bilo gabe
ilerik gabe
larru bizian

[bildurik]

behin animalia izan
eta ilerik gabe
gizaki bihurtu

zeneko unea
markatzen duen hitza

bilu huts
larru gorrian
erropik gabe

[soilik]

erraperik gabe

amak ekarri bezala
mundura etorri bezala

[luizik]

eta metaforatik metonimiara
eta metaforatik

hitz bakarrera igaro

hitz bakar bihurtu

gineneko uea

biluzik

Bazterretatik, zentzumenak fintzean. Isilpean. Halaxe datoz. Bailara, zoko eta ubideetatik, hotsak. Bada mapa bat, bailaraz bailara doana. Animalia formakoa, burua, ahoa, eztarria. Hesteak, urdaila eta ipurdia. Isatsa lurrera. Ahoa burura. Mingaina lepora, eztarrira, diafragmara. Bailaretan zehar, mapa. Begiak belarrira. Oinak eskuetara. Hatzak hortzetara. Mapa bat biluzdura hitza markatzen duena, koloretan. Bailaraz bailarako trantsitua. Hitz baten ahozko aldaerak. Pantone fonetikoak. Biluzduraren metamorfosiak. Mapa, bazterrak, orografia, lurra, hitzen erliebeak eratzen. Hitzen hots eta erresonantziak erliebea bera higatzen. Paisaia bera biluzik, biluzdura hitza bera gorrik. Bada mapa bat, mugimendu hori guztia harrapatu nahi duena. Sailkatu, zerrendatu, bailaraz bailara. Aiztoa, biluzdura harrapatu nahian. Zedarritu, antzutu. Biluzdura esateko moduak harrapatu nahian.

Mapa horren geruzetan bada beste bat, gehiago dena mintza, tolesturetan larru azpitik doana, erraiak ukitzen dituen. Inon agertzen ez dena, beste paisaia mota bat eratzen duena. Topografia baten oszilazioak. Eta hitzen soinu aldaerak bere baitan biltzen dituen. Ahoetan, bere hezetasun guztietan. Aho, listu, mingainez mingain doana.

Eta haien bibrazioak, erresonantziak, trazak. Aditzen?

Dardara baten erliebeak.

Aditzen badira.

Ahoetatik eroritako hotsak entzun daitezke, bertan. Bazterretako oihartzunak, airean diluitu eta hedatzen direnak. Mapak ez dira paisaiak. Ezta ahoak, listuak, izerdiak ere. Konturatu zinen hitzek bazutela izerdia, bazutela listua, bazutela masa, bolumena, hedadura. Lengoaiak bazituela bere bideak eta fisonomiak. Bazituela korridoreak, geruzak, zuloak, azaleko ximurrak eta ile urdinuak. Bere grabitatea, bazituela pisua, erraiak. Eta paisaia eratzen zutela, hor, bailaraz bailara, mapan ez zegoena. Paisaia horretan hotsak bazterretatik, zentzumenak fintzean, zoko eta ubideetatik. Hor, ahoetatik eroritakoak, aho, listu, mingainez mingain.

Paisaia horretan hitzak eta erabilerak eta aldaerak eta gauzak eta animaliak eta basoak eta errekek eta ibilerak eta izerdiak eta zaurgarritasunak eta arnasak eta soinuak, paisaia egiten. Paisaia horretan erliebeak eta txorien kantuak, elkarrekintzan. Paisaia horretan paisaiak berak eta hitzak eta erabilerak. Paisaia berak eta hitzak eta erabilerak eta arnasak eta ahotsak eta oihartzunak, paisaia egiten. Eta paisaia horrek soinuak baldintzatzen. Eta paisaia horrek ere lengoiaia eratzen. Eta oinez zeharkatzean, bertan ahoetatik eroritako hitzak eta soinuak biltzen. Eta oinez zeharkatzean paisaiak bazterretan eratzen dituen oihartzunak aditzen. Eta oinez zeharkatzean soinuen frekuentziak, haien erresonantziak, materia bera eraldatzen.

Soinuz eratuta, gorputz ooren bibrazioa, dardara.

Soinuen trazak, oinez, mugimendu horretan, trantsitu sonoroan.

Ia desagertzeaz. Orduantxe. Piloa, bere indar guztiarekin.

Eta konturatu zinen izateari uzten diotenean, orduantxe, ez aurretik.

Ia desagertzeaz, orduan, indar guztiarekin.

Partikula soniko hezeak.

Energia minimoak.

Birikak arnasten. Lipar hori, hots, pilox.

Arnasten du arnasten duela, bi rikak bi-zi hatsak. Azken hatsean, berriro, bi uneak, pilox pilox. Arnas hari mehe eta ikusezina, batetik bestera gori luzatzen, goiz gorri gori hori.

Une oro, soinu bibrazio baten gauzatzea. Bibrazio baten gauzatze materiala. Eta soinua materia eraldatzen, une oro. Gogamena.

Soinuak izateari uztear.

Izateari uzten dionean, orduantxe,

ez aurretik.

izatekotan
izateari uztear
izateari uztean

orduan

gauzatze a
une oro
soinu bibrazio a
materi a
eraldatzen

Bi entzumen (gutxienez) bi hizkuntza, bi aho, goikoa, behekoa (gutxienez) bi listu, (gutxienez) bi ahots eta nahasketa guztiak. Bi hots (gutxienez), bi erreketan oin bana. Hotza ahoan, bi, goikoa, behekoa, eta beste zuloekin, hamar. Hamaika hots, hamaika erreketan oin bana, bustidura horietan.

Batek eman zizun hara so egiteko zera, besteak soilik luizik zera horko babesa, besteak zera eta besteak hats eta has, baten eta bestearen eta beste haren. Dagoena, ausaz, ur eta ehun. Hezetasuna bazterretik. Igotzen dira urak eta dagoena, eta ez dagoena. Une horretan erreketan oin bana, elkarren arteko eskaintzan, horien ehun eta tolesturak.

Dagoena, ez dagoena ere bai,

izatekotan.

Soinuak eta haien hotsak, izatekotan.

Hemen izatekotan, ez dago protagonistarik, pertsonaiarik.

Izatekotan, erritmoen segida bat. Eta izatekotan soinu hutsak, soilak. Gorrik eta izatekotan, hitzen estalkiak kentzean geratzen dena. Gorrik eta izatekotan agertzen diren bibrazioak, hartzidurak, izatekotan. Izateari uztean, orduan, ez aurretik. Izatekotan aztarna bat baldin badago, hori mingainarena, hori hitzen arteko hezetasunarena. Haiak desagertzeaz geratzen dena, izatekotan. Izatekotan sonemak, trazak, partikulak. Izatekotan energia minimoak. Une horretan, izatekotan, oinak, bi erreketan, bi entzumen (gutxienez), bi hizkuntza eta (gutxienez) bi listu, hots horiek eta beste guztiak, elkarren artean, eskaintzan, bustiduran. Izatekotan, eskaintza hutsean. Izatekotan sartu eta atera. Dena ez dagoela hemen, izatekotan. Dagoena ausaz, eta ez dagoena ere bai. Eta izatekotan ez dagoena ez dagoela. Eta izatekotan ez dagoena ez dagoela, mugimendu horretan.

Eta hemen izatekotan dena ertz gorritz egina,

bizitza gorriak, doinu gorriak, kantu gorriak, narru
gorriak, hitz eta hizkuntza gorriak,

adiskidetasun, ahizpatasun eta maitasun gorriak,

izatekotan

goiz gorri gorrian

Izaki bat esperoan, esperoaren esperoan

Izaki bat bi arroka hiru erreka lau adar

Izaki bat behar ez duena lurrari ematen

Izaki bat biluzik, enborrharen azalean atsedean hartzen

Izaki bat nonbaiteko oihartzunak desagertzen entzuten

